

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Nor da gure bezeroa ?

WAMUren bezero nagusiak komunikazio zailtasunak dituzten pertsonak eta haien ingurukoak izango dira, hala nola familiak, hezitzaileak, ingurune sozialak eta erakundeak. Gure zerbitzuak talde hauei zuzenduak daude: entzumen desgaitasuna duten pertsona gorrei, Hizkuntza eta Hizketa Nahaste Espezifikoak dituzten TEL pertsoneri, Espekto Autistaren Nahastea duten TEA pertsoneri, eta entzumen eta ikusmen desgaitasun konbinatuak dituzten pertsona gor-itsuei. Gainera, zerbitzuak hizkuntza instituzioei, enpresei eta erakunde publiko zein kulturaleri ere eskainiko dizkiegu, irisgarritasuna eta inklusioa sustatzeko helburuarekin.



Zein da gure bezeroen ezaugarriak ?

1. **segmentua:** Erabiltzaileak

Segmentu hau komunikazioan zailtasunak dituzten pertsonak dira, hala nola gorrak, gor-itsuak, TEA eta TEL duten pertsonak eta behar komunikatibo espezifikoak dituzten haurrak. Pertsona horiek espazio konbentzionaletara sartzeko oztopoei aurre egin ohi diete, eta, beraz, mugarik gabe aktiboki parte hartzeko moduko inguruneak bilatzen dituzte, beren komunikazio-trebetasunak aprobetxatuz. WAMUn, ahien beharretara egokitutako komunikazio-bitartekaritzako zerbitzuak eskaintzen espezializatzen gara, erabiltzailearen inklusio osoa eta gizartearen esparru guztietan parte hartzea sustatuz.



2. **segmentua:** Erakundeak eta hizkuntza

Senitartekoek eta zaintzaileek osatzen dute taldea, eta ingurune irisgarri eta seguruak bilatzen dituzte, maite dituztenek giro natural batean parte hartu eta ikasteko aukera izan dezaten. WAMUn, komunikazio-bitartekaritzarako irtenbide pertsonalizatuak eskaintzen ditugu, pertsonak beren gizarte- eta hezkuntza-ingurunean txertatzen lagunduz eta ahalik eta potentzial handiena lor dezaten behar duten laguntza emanez.



3. **segmentua:** Elkartek

Eskolek, ikastetxeek, desgaitasuna duten pertsoneri laguntzen dieten elkartek eta hezkuntza esperientzia gehigarriak bilatzen dituzten tokiko erakundeek osatzen dute taldea. Erakunde horiek inklusioarekin eta jasangarritasunarekin konprometituta daude, eta kalitatezko jarduerak eskaini nahi dizkiete beren kide eta ikasleei. WAMUn, ingurune naturaletan inklusio- eta jasangarritasun-balioak sustatzen dituzten ikaskuntza-jarduerak integratzeko lan egiten dugu, bai eta ikasgelatik kanpo ikasteko aukerak emateko ere, guztiontzako hezkuntza irisgarria eta aberasgarria ahalbidetuz.

